

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

547/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko foru errepideen sareko zarataren aurkako ekintza plana

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 16ko 772/2025 Erabakiaren bidez, behin-behinean onetsi zen "Arabako Lurralde Historikoko Foru Sareko errepideen zarataren aurkako ekintza plana. Betetzea 37/2003 Legea eta 213/2012 Errege Dekretua. 2002/49/EB Zuzentarauaren 4. fasea. 2025-2029 aldia". Era berean, kontsulta aldi bat hasi zen Planaren eremuaren barruan dauden foru sareko errepide zatiak kokatuta dauden udalekin, jendaurrean jartzeko izapidea hasi zen.

2025eko abenduaren 23an, planak eragiten zien udal guztiei jakinarazi zitzairen erabaki hori, eta harekin batera igorri behin-behinean onetsitako ekintza planaren dokumentazioa.

Era berean, aipatutako ekintza plana jendaurrean jarri da hilabeteko epean, iragarkia ALHAOn 2025eko abenduaren 26an eta EHAA 2026ko urtarrilaren 16an argitaratu zenetik aurrera, 213/2012 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoa betez.

Eragindako udalei kontsulta edo entzunaldia emateko izapidearen barruan, bai eta jendaurrean jartzeko izapidearen barruan ere, zenbait alegazio edo idazki aurkeztu ziren, eta Errepide Zerbitzu honek horiei buruzko txostena egin du, zehazki:

— Belén Pérez de Urrutia Fernández de Troconiz Arratzua-Ubarrundiako EH Bilduko bozeramailearen idazkia, 2026ko urtarrilaren 26ko sarrera erregistrokoa, bi alegazio jasotzen dituena: alde batetik, Zurbao eta Artzubiagako guneeetan neurketak egiteko eskatzen du, haizearen aldagaia kontuan hartuta, eta, emaitzen arabera, bi herriak lehentasunezko jarduketa eremu gisa sartzeko aukera aztertzea; eta, bestetik, iradokitzen du beste konpentsazio neurri mota batzuk aztertzea, zaratak eragindako biztanle kopurua txikia izanez gero.

— Armiñongo Udalaren idazkia, 2026ko urtarrilaren 31ko sarrera erregistroa duena, txosten teknikoa erantsita: planean Armiñongo udalerriari buruz jasotakoa jasotzen du, eta ez du Planari buruzko alegaziorik planteatzen.

— Legutioko alkatearen idazkia, 2026ko otsailaren 5eko sarrera erregistroa duena, ingurumen teknikariaren txostena erantsita: eskatzen du lehenespenetik kanpo geratu diren eremuak «aztertu eta analizatu daitezela, beste aukera zuzentzaile bideragarri batzuk identifikatzeko, kanpoko ingurunean ez bada, barneko ingurunean», eta Legutio Erdialdea LJEra «neurri zuzentzaile gehiago sor eta balora daitezela eta 2025-2029 Plan honetan bideragarrien betearazpena planifika dadila».

— Laudioko alkatearen idazkia, 2026ko otsailaren 5eko sarrera erregistrokoa: «A-3638 errepide lehentasunezko jarduketa eremu gisa berriz aztertzeko» eskatzen du, honako hau alegatuz: «kostuei, konplexutasun teknikoari eta neurri posibleen eraginkortasun zehatzari (pantaila akustikoak) buruzko informazio zehatzik ez dagoenez, eraginpeko pertsonen kopuruak justifikatzen du azterketa zehatzagoa egitea, jarduketa horien kostu-onura erlazioa ebaluatzeko, bai eta zarata arintzeko bideragarriak izan daitezkeen beste neurri batzuk kontuan hartzeko ere» eta «A-3638 errepidea dela ingurunean kalitate akustikoko helburuak gainditzen nabarmen eta ia eskusiboki laguntzen duen soinu fokua».

— Donemiliagako alkatearen idazkia, 2026ko otsailaren 6ko sarrera erregistroa duena, Arabako Lautadako Kuadrillako Ingurumeneko teknikariaren txostena erantsita: adierazten du aurreikositako pantaila akustikoa jartzeak ondorio positiboak izango dituela Donemiliagako udalerrian, zehazki Egilatz gunean, eta ez diola inolako alegaziorik egiten Planari.

— Amurrioko Udaleko presidentearen idazkia, 2026ko otsailaren 13ko sarrera erregistrokoa: eskatzen du «Amurrioko udal mugartean araudia betetzen ez dela aitortzeko», «tarte horiek Ekintza Planaren lehentasunezko jarduketa eremuen artean sartzeko» eta «Ekintza Planak, lehentasunez eta egikaritze egutegi zehatzarekin, udalerriko eraginpeko tarteetarako neurri zuzentzaile espezifikoak sartzeko».

— Bastidako Udalaren idazkia, 2026ko otsailaren 17ko sarrera erregistroa duena, txosten teknikoa erantsita: planean Bastidako udalerriri buruz jasotakoa jasotzen du, eta ez du Planari buruzko alegaziorik planteatzen.

— Arratzua-Ubarrundiako Udalaren idazkia, 2026ko otsailaren 18ko sarrera erregistroa duena, udaleko arkitekto aholkulariak egindako 2016 txostena erantsita: adierazten du ez datorrela bat Ekintza Planak jasotzen duen azaldutako biztanle kopurua eta Zortasun Eremu Akustikoak eragindako etxebizitza kopurua, eta eskatzen du «gure udalerrian jasan dezaketen pertsonen kopurua berrikusteko, eta, horren ondorioz, lehentasunezko jarduketa eremuetan (LJE) sartzeko, hala badagokio».

— Ignacio Urtaran Rueda eta Minerva González Coca Ribabellosako bizilagunen idazkia, 2026ko otsailaren 17ko sarrera data duena: eskatzen du «Venta el Bullón hurbileko biztanlegune gisa identifikatzea, zaratak osasunean eta atsedenean zuzenean eragiten baitu, eta neurketak bertan egiteko», eta «2025-2029ko Ekintza Planean berariaz sartzeko hesi akustikoak instalatzea edo, hala-korik ezean, zoladura zarata-xurgatzaileak aplikatzea», eta «abiadura muga espezifikoak edo zarata kontrolatzeko sistemak ezartzeko, gaueko trafikoaren inpaktua murrizteko».

Legutioko, Laudioko, Amurrioko eta Arratzua-Ubarrundiako udalek eta Belén Pérez de Urrutia Fernández de Troconiz Arratzua-Ubarrundiako EH Bilduko bozeramaile eta Ignacio Urtaran Rueda eta Minerva González Coca Ribabellosako bizilagunek aurkeztutako idazkiei buruzko txosten teknikoa egin du TECNALIAk, plana idatzi duen enpresa espezializatuak. Laudioko Udalaren kasuan, gainera, eremu horretarako azterketa akustiko zehatza egin da.

Aztertu da Errepide Zerbitzuak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendariaren adostasunarekin egindako txostena.

Horrenbestez, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hartutako

ERABAKIA

Lehenengoa. Behin-behineko onestea “Arabako Lurralde Historikoko foru errepideen sareko zarataren aurkako ekintza plana. Betetzea 37/2003 Legea eta 213/2012 Errege Dekretua. 2002/49/EB Zuzentarauaren 4. fasea. 2025-2029 aldia”.

Bigarrena. Eragindako udalei egindako kontsulta izapidean eta “Arabako Lurralde Historikoko Foru Sareko Errepideen Zarataren aurkako Ekintza Plana. Betetzea 37/2003 Legea eta 213/2012 Errege Dekretua. 2002/49/EB Zuzentarauaren 4. fasea. 2025-2029 aldia” “ jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea, horri buruz egindako txostenen eta egindako azterketa akustiko xehatuaren arabera.

Hirugarrena. ALHAOn argitaratzea “Arabako Lurralde Historikoko foru errepideen sareko zarataren aurkako ekintza plana. Betetzea 37/2003 Legea eta 213/2012 Errege Dekretua. 2002/49/EB Zuzentarauaren 4. fasea. 2025-2029 aldia” behin betiko onestearen iragarkia.

Laugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango duzu, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, BI HILABETE izango dituzu, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko

auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bai eta egoki jotzen den beste edozein errekurtso ere.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua

JON NOGALES PRIETO